

# ESKALADA tailerra

Eibarko Udalak eskalada inguruko tailerra antolatu du kirol ikusgarri honetan murgiltzeko.

**Tramitatzailea:** Haurreria eta Gazteria.

**Hartzaileak:** LH 3. eta 6. mailakoentzat.

**Ikastaroaren prezioa:**

- **5€** (Eibarren erroldatuak).
- **10€** (Eibartik kanpokoak).

**Ikastaroaren ordainketa:** Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

**Eskaera egiteko tokia:**

- **Elektronikoki**, udal webgunetik: [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)  
Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki**, PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Nork emango du:** GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA.

**Non:** Ipurua Kiroldegian.

**Datak:** Otsailak 2, 9, 16 eta 23.

**Ordutegiak:**

Txanda 1: 16:45etatik 18:15etara.

Txanda 2: 18:15etatik 19:45etara.

**Egun eta txanda bakarra aukeratu beharko da.**

**Ikasle kopurua:** gutxienez 4 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 6 ikasle.

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

**Eskaera egiteko epea:** urtarrilaren 20tik 27ra.

Ezarrirako gehiengo ikasle kopurua gainditzen bada, urtarrileko eskalada tailerrean onartuak izan diren ikasleak automatikoki zerrendatik kanpo geldituko dira, zozketan parte hartzeko aukerarik izan gabe.

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

- **“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA”** izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Matrikulazioa presentzialki egiten bada, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da emandako datuak egiaztatzeko.

**Kudeaketa arauak:**

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarrirako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), 2020ko **urtarrilaren 30ean**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarrirako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarrirako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarrirako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **urtarrilaren 30ean 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), egongo da **urtarrilaren 30ean, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

**Oharrak:** talde batean izena emandakoen kopuruak ezarrirako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarrirako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldeetan izena eman dutenen kopurua ezarrirako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleez osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz eta ikastaroa jasoko duten ikasleen adin bereko taldeari lehentasuna emanez.

**Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan**

